

INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA SA-N (Izfe SA) “ARLOKO ARDURADUNA:IKT ZERBITZUAK” LANPOSTUA BETETZEKO HAUTATZE PROZESURAKO DEIALDIA ETA BALDINTZAK

LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SA-n, Gipuzkoako Foru Aldundia % 100 den merkataritza sozietate forala, (aurrerantzean Izfe SA) lanpostu bat betetzea. Deialdia publikoa eta irekia da, eta OTEIC Taldearekin, langileak aukeratzeko enpresaren laguntzarekin, eramango da aurrera hautatze prozesua, dokumentu honetan jasotako baldintzak eta berdintasun, meritua, gaitasun eta publizitate printzipioak kontuan harturik.

Deitutako lanpostua premia larri eta atzeraezin bati erantzuteko da, ondoko lanpostuan txanda premia baitago:

- Arloko arduraduna: IKT Zerbitzuak.

Planteatzen da lanpostu hori informazio sistemen eta teknologien sektorean profesionalki garatzeko aukera handia duen proiektu profesional eta antolaketa proiektu sendoan sartzeari, aldaketa teknologikoaren eta belaunaldien arteko erreleboaren egungo testuinguruan. Izan ere, beharrezkoa da gure bezeroek herritarrei zerbitzua emateko behar dituzten proiektu estrategikoei eta intereseko eraldaketa prozesuei ekitea, eta irtenbideak eskaintzea, arintasunari, gardentasunari eta irisgarritasunari dagokienez. Era berean, familia eta lan bizitza bateratzeko neurri multzo handia proposatzen da.

Plantillan sartzeari eskaintzen da, kontratazio mugagabearekin eskaintzen den lanposturako. Ordainsaria 71.800€- euro gordin izango da urtean.

Dokumentu honen I. eranskinean jaso da postuaren deskribapen nagusia.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Deialdian onartua izateko eta, hala behar badu, hautatze prozesuan parte hartzeko, honako baldintza baztertzailerik hauek bete beharko dira (e) puntuan adierazten denaren salbuespenarekin) parte hartzeko eskaera egiteko epea bukatzen denerako (2020ko irailak 28):

- a) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea, parte hartzeko eskaera egiteko epea amaitzen den datan.
- b) Hiritartasuna: Europako Batasuneko kide den Estatu bateko hiritartasuna izatea, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu daitezkeen Estatu bateko herritartasuna izatea.

Baita Europako Batasuneko Estatuetakoko herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, eta baita haien eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, 21 urtetik beherako ondorengoak badira edo adin hori baino handiagoa izan arren, haien bizkar bizi direnak badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan ez dauden eta legezko bizilekua espainiar estatuan duten atzerritarrek hartu ahal izango dute parte. Aukeratuak suertatzen badira, kontratuak gai duen jarduera egiteko administrazio baimena eduki beharko dute kontratua formalizatu aurretik.

- c) Titulazioa: Unibertsitateko Informatika, Telekomunikazio, Ingeniaritza titulu ofizialaren edo homologagarriaren jabe izatea edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea, bai eta Zientzien edo Ingeniaritzaren adarreko beste unibertsitate ikasketa batzuk ere.

Atzerriko titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatuko duen agiria eduki beharko dute.

- d) Lan esperientzia: 10 urteko esperientzia IKT zerbitzuen alorrean, erantzukizun maila handiarekin baliabideen eta taldeen zuzendaritza eta kudeaketa eginkizunetan.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak igorritako bizitza laboralaren txostena edo kontratuen amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen dokumentuaren bidez egiaztatuko da esperientzia hori. Dokumentu horri laneko kontratuak erantsi dakizkioke, betiere burututako lana jasotzen badu haren edukiak, edo enpresaren bestelako ziurtagiriren bat erantsi daiteke, hark maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu, eta parte hartzeko formularioan eskatutako azalpen informazioaren bidez.

- e) Euskara:

- Euskara ezagutzaren C1 mailako edo homologagarriaren ziurtagiri ofiziala edo, hala behar badu, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria izatea.

Edo, hala badagokio,

- HABEren irakaskuntza mailen arabera erabilzaile gaitua izatea. Arlo horretan gaitasuna duen erakunde batek (euskaltegiak) egiaztatu beharko du alderdi hori. Hautatze enpresak beharreko hautagaiei dei egingo die hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen egingo den proba egin dezaten.

- f) Lanpostuak bere dituen lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea: dagozkion lanak egiteko eragozpenak sortuko dizkion gaitasun fisiko edo psikikorik ez izatea.

Hautagaiek parte hartzeko eskaerak egiteko epea amaitzen den datarako bete behar dituzte baldintza horiek (e) puntuan aurreikusten denaren salbuespenarekin, hala badagokio) eta betetzen jarraitu lan kontratua sinatu arte, f) atalean adierazitakoa izan ezik, hura mediku zerbitzuak egiaztatu beharko baitu justu kontratazioaren aurretik.

Prozesuaren edozein unetan hautatze batzordeak jakiten badu hautagairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, prozesutik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKAERA.

Parte hartzeko eskaerak eta eskaerarekin batera erantsi beharreko agiriak horretarako prestatutako formulario elektronikoaren bidez bideratuko dira. Formulario hori honako helbide honetan egongo da eskuragarri:

www.izfe.eus/izen-ematea

(Chrome, Firefox edo MS Edge nabigatzaileak erabiltzea gomendatzen da.)

Edozein zalantza argitu edo laguntza behar baduzu, jarri harremanetan OTEIC Taldearekin, honako bitarteko hauen bidez:

- Telefonoa: 943316869
- Posta elektronikoaren bidez izfe2020@oteic.com helbidera, gaian "CONVOCATORIA IZFE 2020 DEIALDIA" adierazita.

Parte hartzeko eskaerak bideratzeko epea 23 egun naturalekoa izango da, deialdi hau prentsan argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta zehatz esateko, 2020ko irailaren 6tik 2020ko irailaren 28 arte, biak barne

Parte hartzeko eskaerak bideratzeko prozedura:

- Hautatze prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak formularioa bete beharko dute eta bertan adierazi beharko dute bigarren baldintzan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela (bigarren baldintzaren e) puntuan aurreikusten denaren salbuespenarekin, hala badagokio), parte hartzeko eskaera egiteko epea amaitzen den datari begira betiere.
- Era berean, merituen fasean baloratu beharreko datuak jaso beharko dituzte, nahiz eta prozesuan zehar merituhoriek egiaztatze epe espezifiko bat irekiko den, prozesuan jarraitzen duten hautagaiek formularioan adierazitako merituen egiaztagiria ekartzeko.
- Honako dokumentazio hau erantsiko da arestian aipaturiko formularioarekin batera:**
 - Nortasun agiri nazionala edo identifikazio dokumentu baliokidea.
 - Curriculum Vitae eguneratua.

- Unibertsitate titulu ofiziala edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.

Dokumentu hori ez da aurkeztu beharko Izfe SAri baimena ematen bazaio datu bitartekaritzako plataformaren zerbitzuen bidez egiaztatzeko, eskabide orrian zehazten denaren arabera; izan ere, baimen horrek salbuetsi egiten du interesduna unibertsitateko titulazio ofiziala formularioari eranstetik eta ondorengo egiaztapen fisikotik.

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak igorritako bizitza laboralaren txostena edo kontratuen amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen dokumentua. Dokumentu horri laneko kontratuak erantsi daitezke, betiere burututako lana jasotzen badu haren edukiak, edo enpresaren bestelako ziurtagiriren bat erantsi daiteke, hark maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu.
- C1 euskara maila egiaztatzen duen titulua, izanez gero.
- Hautatze prozesuaren garapenean hautagai batek aintzat hartu beharreko desgaitasunen bat badu, formularioan eskatu beharko du gainerako parte hartzaileekin berdintasun baldintzetan ariketak egiteko behar dituen denbora eta bide egokitzapenak, betiere horrek ez badu probaren edukia indargabetzen, eta ez badu eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltetzen. Hautatze batzordeari dagokio eskatutakoa ematearen bidezkotasuna edo ez baloratzea. Era berean, ezgaitasun maila aitortzen duen ziurtagiria aurkeztuko da, halakorik bada.

d) Eskaera elektronikoki sinatu beharko da, eta, horretarako indarrean dagoen ziurtagiri digitala izan beharko da. Honako sinadura sistema hauek onartuko dira:

- Sinadura elektronikoaren ziurtagiri elektronikoa kualifikatua edo onartua. Kontsultatu onartutako sinadura ziurtagiriak esteka honetan: <http://administracionelectronica.gob.es/PAe/aFirma-Anexo-PSC>. Zehazki, *A atalean -Ziurtapen zerbitzuen hornitzaileak eta haien ziurtagiriak* adierazitakoak onartzen dira. Honako hauek dira onartutako ziurtagiritako batzuk: Izenpe, DNI-e, Camerfirma, eta Fábrica Nacional de Moneda y Timbre (FNMT) erakundeek emandako pertsona fisikoen ziurtagiriak.
- B@KQ sinadura elektronikoa aurreratua (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/b-kq>).
- Erabilera profesionalerako banakako identifikazio elektronikoa. (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/profesional-en-la-nube>).

Gaztelania edo euskara ez bestelako edozein hizkuntzatan dagoen dokumentazio oro zinpeko itzultzaileak itzulia aurkeztu behar da, baloratua izan dadin.

2. fasean eskatuko da jatorrizko dokumentazioa aurkeztea, erkatzeko, seigarren baldintzan adierazten den bezala (unibertsitateko titulazio ofizialari dagokiona izan ezik, baldin eta Izfe SAri baimena eman bazaio datu bitartekaritzako plataformaren zerbitzuen bidez egiaztatzeko, eskabide orrian zehazten denaren arabera, fisikoki egiaztatu behar izatetik salbuesten baitu horrek).

2. fase berean merituen balorazioari dagokion dokumentazioa eskatuko da (jatorrizkoa eta fotokopia). Jatorrizkoa eta kopia ez badatoz bat, hautatze prozesutik kanpo utzi ahal izango da hautagaia.

Izfe SAk eskubidea du aurkeztutako dokumentazioa/informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko, eta automatikoki hautaketa prozesutik kanpo utz ditzake egiazkoa ez den informazioa eman duten pertsonak.

LAUGARRENA. HAUTAGAIK ONARTZEA.

Eskaerak bideratzeko epea amaitu ondoren, bederatzigarren baldintzan adierazitako bidetik argitaratuko da onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

Aipaturiko zerrenda horretatik kanpo geratu diren pertsonak 3 laneguneko epea izango dute, argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, kanpoan uzteko arrazoi izan diren okerrak edo ez egiteak zuzentzeko edo egokitze hartzen dituzten alegazioak planteatzeko. Horretarako, alegazio orri bat egongo da eskuragarri Izfe SAren web orrian.

Behin-behineko zerrenda behin betiko bilakatuko da alegaziorik ez bada aurkezten. Alegazioak aurkezten badira, haiek onartu edo gaitzetsi egingo dira, hala badagokio, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez, eta aurrekoaren modu berdinean argitaratuko da hori ere.

Behin-behineko zerrendatik kanpo geratu diren pertsonak, jarritako epean alegazioa aurkeztu dutenak, badaezpada ere azterketetara aurkeztu ahal izango dira, planteatutako alegazioa data horretarako ez bada erabaki.

BOSGARRENA. HAUTATZE BATZORDEA.

Hautatze batzorde bat osatuko da eta kideen izendapenean inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak errespetatuko dira.

Ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu hautatze batzordeak, eta beharrezko erabakiak hartuko ditu fase bakoitza behar bezala gara dadin lortzeko, haietan aurreikusi ez diren kasuei begira aintzat hartu behar diren irizpideak zehaztuta. Era berean, fase bakoitzeko baliabideak baliozkotuko ditu eta sortzen diren gorabehera guztiak konponduko ditu.

Hautatze batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, eta parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla ziurtatzeko.

Hautatze batzordeak bere lanetarako aholkulari edo enpresa espezializatuak eduki ahal izango ditu egokitze hartzen dituen azterketetako probak egiteko.

Hautatze batzordeko kide bat ezin bada joan, Izfe SAko Zuzendaritza Nagusiak haren ordezkoa izendatuko du.

SEIGARRENA. HAUTATZE PROZESUAREN GARAPENA.

Jarraian, hautatze prozesuko fase desberdinak zehazten dira a priori burutzea aurreikusten diren hurrenkeran. Edozein kasutan, hautatze batzordeak jarraian izendatzen diren faseak eta probak egiteko hurrenkera aldatu ahal izango du, hainbat fase eta proba egun berean egitea zehaztuz edota fase edo probaren bat kenduz, prozesuaren martxaren arabera.

Segidan zehazten diren fase guztiak baztertzailerak izango dira, 3.fasea izan ezik, behar bezala alegatutako eta egiaztatutako merituen balorazioari dagokiona.

Honako fase hauetan banatzen da hautatze prozesua (II. eranskina):

- **1. FASEA: Gaitasunen analisia edo/eta ezagutzen analisia**, bete beharreko lanpostuaren xedearekin eta eskakizunekin loturiko gaitasun probak edo/eta proba teoriko-praktikoak egingo dira.

30 puntu izango ditu gehienez. Gutxienez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

- **2. FASEA: Elkarrizketa/k eta Analisi pertsonala eta Kompetentziala.** Elkarrizketa/k edo/eta beste proba pertsonal batzuk, bakarka edo/eta taldeka, egingo dira, hautagaiak postuak eskatutako profilerako egokiak diren eta beharreko gaitasunak dituzten baloratzeko.

Postuak eskatzen duen intentsitatea kontuan hartuta baloratuko diren dimentsioak eta kompetentziak honako hauek dira, besteak beste:

- Kudeaketa: lidergoa, pertsonen kudeaketa, planifikazioa eta antolakuntza
- Intrapertsonala: autokontrola, konfiantza, segurtasuna, dinamismoa, kontrakotasunei aurre egitea.
- Interpertsonala: komunikatzeko eta entzuteko, harremanak izateko, taldean lan egiteko gaitasuna.
- Ingurua: ikuspegia eta aurrea hartzea, bezeroarekiko orientazioa, irekiera, enpresarekin identifikatzea eta konprometitzea.
- Zereginen garapena: ekimena, emaitzetara bideratzea, analisi gaitasuna eta alternatiba zehatz eta berritzaileak proposatzeko gaitasuna, gaitasun erabakitzailea, erabakiak hartzeko gaitasuna

Gehienez 50 punturekin baloratuko da. Gutxienez 37,5 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Eskaera formularioan adierazitako datu guztiei dagokien jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko da fase honetan erkatzeko (unibertsitateko titulazio ofizialari dagokiona izan ezik, baldin eta Izfe SAri baimena eman bazaio datu bitartekaritzako plataformaren zerbitzuen bidez egiaztatzeko, eskabide orrian zehazten denaren arabera, fisikoki egiaztatu behar izatetik salbuesten baitu horrek).

Une berean merituen balorazioari dagokion dokumentazioa eskatuko da (jatorrizkoa eta fotokopia), datorren puntuan adierazten den bezala. Jatorrizkoa eta kopia ez badatoz bat, hautatze prozesutik kanpo utzi ahal izango da hautagaia.

- **3.FASEA: Merituen balorazioa.** 20 puntu izango ditu gehienez. **Parte hartzeko eskaera formularioaren bidez alegaturiko ondoko meritua hauek baloratuko dira:**

- Lan esperientzia: hautatze prozesuan parte hartzeko eskatzen denaren osagarria eta ondoren zehazten diren esparruetan:
 - IKT azpiegitura eta zerbitzuak hornitzeko aurrekontuen eta proiektuen kudeaketa.
 - Zerbitzuen antolaketa eta ITIL prozesuak ezartzea.
 - Taldeen kudeaketa.
 - Eremu publikora hurbilketa.

Atal honetan gehienez ere 12 puntu emango dira, 3 puntu baloratzen den esparru bakoitzerako.

Parte hartzeko eskaeraren formularioan adierazten den bezala, alegatutako esperientzia bakoitzean zein eginkizun izan diren zehaztu beharko da, bai eta eskatutako esperientziaren xehetasunak osatu ere.

Hautatze batzordeak urtebeteko iraupena baino gutxiagoko denbora epeak kontatu ahal izango ditu proportzionalki. Lanaldi partzialaren erregimeneko dedikazio denboraldiak daudenean, egiaz eskainitako dedikazio denborarekiko proportzionalki egingo da kontaketa.

- Prestakuntza osagarria, hautatze prozesuan parte hartzeko eskatutako titulazioaren gehigarria eta prozesuaren xedearekin loturik dagoena, jarraian zehazten den bezala:
 - IKTen eremu teknologikoan eta enpresa kudeaketaren arloan egindako masterrak.
 - IKTen alor teknologikoan eta/edo alor metodologikoan lortutako ziurtagiriak. 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera lortutako ziurtagiriak bakarrik hartuko dira kontuan.

Atal honetan gehienez ere 6 puntu emango dira, 2 puntu masterrei eta 1 puntu lanpostuaren eskakizunekin bat egiten duten ziurtagiriei.

- Ingeles ezagutza:
Atal honek 2 puntu izango ditu gehienez.

Hautatze batzordeari dagokio esperientziaren ezaugarriak, trebakuntza edukiak eta ingeleseko ezagutzak baloratzea, posturako izan ditzakeen onuren arabera.

Merituak honela egiaztatuko dira:

- Dokumentazioa 2. fasean aurkeztuko da. Baloratu beharreko merituen egiaztagiria (jatorrizkoa eta fotokopia) aurkeztu beharko dituzte hautagaiek. Horiek parte hartzeko eskaeran alegatu beharko dira aldez aurretik, hirugarren oinarrian ezarritakoari jarraiki, eta fase honetan hartuko dira kontuan.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak igorritako biritza laboralaren txostena edo kontratuen amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen dokumentuaren bidez egiaztatuko da lan esperientzia. Dokumentu horri laneko kontratuak erantsi dakizkioke, betiere burututako lana jasotzen badu haren edukiak, edo enpresaren bestelako ziurtagiriren bat erantsi daiteke, hark maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu, eta parte hartzeko formularioan eskatutako azalpen informazioaren bidez.
- Prestakuntza osagarriaren frogagirik haren iraupena zehaztu beharko dute ordutan edo kreditutan, bai eta edukia ere, ziurtagiriaren titulutik hori ondorioztatu ezin bada.

Balorazioan ez dira kontuan hartuko alegatutako merituak, ez badira aski edo behar bezala egiaztatzen.

Azterketa bakoitzerako dei bakarra egingo zaie hautagaiei. Dei egindako pertsona ez bada azterketara aurkeztu, automatikoki galduko du azterketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta, horrenbestez, hautatze prozesutik kanpo geratuko da.

Bederatzigarren baldintzan adierazitako baliabidean argitaratuko da informazio guztia, eta gutxienez 72 ordu lehenago egingo dira probetara joateko deialdiak.

Azterketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dira desgaitasuna duten eta egokitzea behar duten pertsonentzat, baldin eta parte hartzeko eskaeran eskatu eta justifikatu badute, eta hautatze batzordeak positiboki baloratu badu eskatutakoa ematea gainerako parte hartzaileen aukera berdina izan ditzaten. Betiere horrek ez badu probaren edukia indargabetzen, eta ez badu eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltetzen.

Hautatze batzordeak, edozein unetan, behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izango die hautagaiei, eta, horretarako, NAN edo, batzordearen iritziz hautagaiaren nortasuna aski egiaztatzen duen beste edozein dokumentu (pasaportea, gidabaimena, atzeritarren identifikazio zenbakia eta beste), eraman beharko dute azterketa bakoitzera. Ez badute hori egiten, kanpoan geldituko dira.

ZAZPIGARRENA. ALEGAZIOAK.

Interesa duten pertsonak alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko emaitzak Izfe SAn web orrian argitaratu ondoren. Horretarako 3 laneguneko epea izango dute, argitaratu diren egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

Interesa duten pertsonak bederatzigarren baldintzan adierazitako baliabidean argitaratutako den alegazio orria bete beharko dute eta OTEIC Taldeari bidali horretarako jarritako epeetan.

Hautatze enpresak eta hautatze batzordeak erabakiko dituzte alegazioak.

ZORTZIGARRENA. LANEAN HASTEAN.

Hautatze prozesuak dituen fase guztietan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du behin betiko sailkapen ordena, baldin eta finkatutako irizpideen arabera gainditi badira fase horiek.

Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ordena zehazteko:

1. 2. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
2. 1. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
3. Zozketa bidez.

Aukeratutako hautagaiak osasun azterketa egin beharko du, hori nahitaezkoa eta baztertzaila baita. Ondoren, hala badagokio, plantillan sartuko da eta Elkartearen araudiaren arabera jardungo du.

Eskatutako dokumentazioa ez badu aurkezten edo osasun azterketa egokia ez bada, kontratatze eskubide guztiak galduko ditu hautagaiak.

Sei hilabeteko probaldia izango du kontratatze proposatutako pertsonak. Hautagaiak ez badu probaldi hori gainditzen, kontratatze eskubide guztiak galduko ditu.

Aukeratutako pertsona bati Izfe SAn hasteko deia egitean, aukeratutako pertsona horrek uko egin ahal izango dio eskaintza zehatz horri. Kasu horretan, ulertuko da uko egitea behin betikoa dela, eta horrenbestez, uko egiten diela Izfe SAn hasteko etorkizuneko deiei ere, deialdi honen xede esparruan.

Hautagai bakar batek ere ez badu lortzen oinarrietan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa probetan, hautatze prozesua bete gabe utzi ahal izango da. Kasu horretan beste deialdi bat hasi ahal izango du Izfe SAn.

BEDERATZIGARRENA. INFORMAZIOA ARGITARATZEA.

Oro har, iragarkien komunikazioa, proba desberdinetarako deialdiak (gutxienez 72 ordu lehenago egingo da hori), emaitzen argitalpena, eta abar, deialdiari eta hautatze prozesuari dagozkionak, bide honetatik emango dira: www.izfe.eus (lanpostu deialdiak atalean).

Egin beharreko argitalpenen ondorioetarako, eskaera formulario elektronikoaren bidez tramitatu ondoren eskaera bakoitzari esleituko zaion kodea erabiliko da hautagaien nortasuna jasotzeko. Formulario elektronikoa bukatutakoan, eskatzaileek mezu elektronikoa jasoko dute formularioa bidali dutela baieztatzeko. Mezu horretan agertuko da esleitu zaien kodea (formulario zenbakia).

Kode horrek hautatze prozesuaren garapenean lortutako puntuazioen eta emaitzen argitalpen guztietarako balioko du, bai eta hautapen prozesu honen esparruan egiten diren bestelako komunikazioetarako ere, halakorik bada.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Publizitate printzipioak arautzen du hautatze prozesu hau, eta horrenbestez, prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du hautagaiak onartu egiten dutela beren eskaeran Izfe SARI (Gipuzkoako Foru Aldundia % 100 den merkataritza sozietate forala) eman dizkioten datu pertsonalen tratamendua, hautatze prozesuko emaitza partzialak eta behin betikoak hainbat hedabidetan argitaratu ahal izateko.

2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak xedaturikoaren arabera, hautatze prozesuko parte hartzaileei ondoko hau jakinarazten zaie:

- Hautatze prozesuan parte hartzeko eskaeratik lortutako datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzen duen hautagai bezala kudeatzeko soilik tratatuko dira, eta kontratazioaren kasuan, langile bakoitzaren espedientera erantsiko dira.
- Izfe SA da tratamenduaz arduratzen den erakundea
- Grupo OTEICek (Oteic Consulting Group, SA) izango da emandako datuen tratamenduaren karguduna
- Informazio pertsonala Izfe SAK pertsonala kontratatzeko hautatze prozesua deitzeko eta ebazteko bidezko interesaren arabera eskatuko eta tratatuko da. Informazioa ez emateak prozesuan parte hartzeri uko egiten zaiola esan nahi du.
- Eskaera sinatzeak esan nahi du eskatzaileak beharrezko informazioa baduela, eta bere datuak tratatzeko baimena ematen duela. Horrenbestez, berariaz onartzen du Izfe SAK bere datuak jakinaraztea, oinarrietan jasotako baldintzen arabera argitaratuz.
- Behar diren argitalpenak egiteko, kode baten erabileraren bitartez hautagaiaren identitatea gordeko da. Kode hori baliozkoa izango da hautatze prozesuaren garapenean lortutako puntuazioen eta emaitzen argitalpen guztietarako eta, kasua balitz, hautatze prozesu honen esparruan egin daitezkeen bestelako jakinarazpenetarako.
- Sarbide eskubidea erabili ahaliko dute, eta, kasua balitz, zuzentzea, ezeztatzea edo aurkaratzea eskatu, legeak ezarritakoaren arabera, idatzizko jakinarazpen bat zuzenduz tratamenduaren arduradunari ondoko helbidera:



Izfe SA
Miramon pasealekua, 168
20014 Donostia San Sebastián

- Era berean, eskubide hauek erabil ditzake Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

Donostian, 2020ko irailaren 6an

I. ERANSKINA - LANPOSTUEN DESKRIBAPEN NAGUSIA.

Sozietateko Zuzendaritza Nagusiaren mende egongo da zuzenean, eta haren egitekoa izango da sistema eta azpiegitura teknologikoak, hardwarea eta softwarea (komunikazioak eta sareak, segurtasuna, sistema eragileak, zerbitzariak, mainframea, biltegiatze administrazioa, datu baseak eta bestelako azpisistemak) planifikatu, ezarri, kudeatu eta mantentzea, ahalik eta eskuragarritasun operatibo handiena bermatzeko, kalitate mailak ezarriz, eta azken erabiltzaileari zerbitzu informatikoa, euskarri teknikoa eta laguntza emateaz arduratuko da.

Halaber, instalazioaren azpiegiturarako aurrekontua, sistemak erosteko lizitazio prozesuak, saldu osteko zerbitzuak, laguntza teknikoa eta abar kudeatzeaz arduratuko da. Horretarako, aurrerapen teknologikoen berri izan behar du.

Arloko lantaldea kudeatuko du, eta haren orientazioaz eta garapenaz arduratuko da zehaztutako helburuak betetzeko.

II. ERANSKINA - HAUTATZE PROZESUKO FASEEN ETA GEHIENEO ETA GUTXIENEO PUNTUAZIOEN LABURPENA.

FASEA	GEHIENEO PUNTUAZIOA	GUTXIENEO PUNTUAZIOA
1. GAITASUNEN ANALISIA EDO/ETA EZAGUTZEN ANALISIA	30	15
2. ELKARRIZKETA/K ETA ANALISI PERTSONALA ETA KONPETENTZIALA	50	37,5
3. MERITUEN BALORAZIOA	20	---
GUZTIRA (1+2+3)	100	52,5